

# JESUS ETA JOAN BATEATZAILEA

1

Jordan ertzean agertu zan behin  
oihuz Joan Batailaria:  
“Gure artean dago Mesias,  
neu bere mezularia.  
Bide onera zuzendu bedi  
lehen bait lehen pekataria;  
Mesias hori datorrenean  
emongo deutso saria”

3

Behin baten Jesus agertu jakon  
pekatarien erroldan,  
Joanek laster igerri eutson  
nazaretar hori nor dan.  
Ardiekin bat eginda sartu  
nahi dau Aitaren eskortan,  
baina lehenago igaro behar  
Kalbarioa ta Jordan.

5

Ibaitik urten eta bertantxe  
zeru goitik zaratea:  
“Haxe da nire Aukeratua,  
hau nire seme maitea.  
Beragan daukat nire poza ta  
nire atsegin betea;  
berari entzun ta jarraitzea  
da nire borondatea”.

2

Guztitariko andra ta gizon  
etorkiozan arduraz,  
Mesias hori etortzerako  
bihotzak prestatu guraz.  
Joanek onartu ta bateatzen  
ebazan Jordango uraz,  
bizibarritan sentitzen ziran  
espirituzko freskuraz.

4

-”Zeu Mesias ta, nik ezin zaitut  
Zeuk behar nozu baitaia”.  
-”Zagoz isilik ta bete daigun  
zeruko Aitaren nahia”.  
Horra Jesusek bedeinkatuta  
betiko Jordan ibaia,  
hortxe Mesias egiten jaku  
gizon guztion anaia.

6

Jordan ibaitik urten da Jesus  
Espirituaz beterik,  
Aitaren nahia bete artean  
ez dau izango bakerik.  
Ez da sekula izan munduan  
hain aitazulo semerik;  
ez da semerik izan sekula  
Aitarentzat hain maiterik.